



GI PUZKOA EUOPAKO LURRALDE KOHESIOAREN TESTUINGURUAN

Gipuzkoako errentak % 36 gainditu du Europar Batasunaren batez bestekoa

Gipuzkoan 29.100 eurokoa da biztanleko BPGd-indizea. Erosteko ahalmenaren paritateari dagokionez (hau da, EBko estatuen prezio-diferentziala barne hartuta), Gipuzkoako biztanleko BPGd-k % 36 gainditzen du EB-27ri dagokion batez bestekoa.

Eurostat-ek berriki aurkeztu duen argitalpen batetik hartu dira datu horiek. Argitalpen horrek 2006rako Europar Batasuneko NUTS2 administrazio-unitateei (eskualdeei) eta NUTS3 unitateei (probintzia eta antzekoei) dagokien biztanleko BPGd erakusten du.

Gipuzkoa eta Europar Batasuna-27ren arteko aldea zabalduz joan da azken urteetan; horrela, 2001ean % 9koa zen (erosteko ahalmenaren paritateari dagokionez).

EBko kide diren bi estatuk bakarrik lortu dute, batez beste eta erosteko ahalmenaren paritatea kontuan hartuta, Gipuzkoako biztanleko BPGd gainditzea: Luxenburgo eta Irlanda, hain zuzen ere.

Bizitza-kostu desberdinen eragina alde batera utzita (kasu horretan, Gipuzkoako biztanleko BPGd-indizea EBko batez bestekoa baino % 23 altuagoa da), zortzira zabaltzen da Gipuzkoako biztanleko BPGd gainditzen duen estatu kopurua. Lehen aipatutako bi estatuez gain, honako hauek: Danimarka, Suedia, Holanda, Erresuma Batua, Finlandia eta Austria.



15. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Iraila




• Gipuzkoa Europako eskualdeen % 92ren aurretik dago

EBko 271 eskualdeak batera hartuta, Gipuzkoako biztanleko aberastasun-indizeak eskualde horien guztien % 92tan erregistratutakoa gainditzen du.

23 eskualdek bakarrik lortu dituzte maila altuagoak. Europako eskualde aberatsenen artean aipatzekoak dira: Inner London, Luxenburgo, Bruxelles-Capitale eta Hamburg, bakoitzean bizi den biztanle kopurua kontuan hartuta, balio erantsia sortzeko duten ahalmenagatik.

23 eskualde horiek EBko kide diren 12 estatutan daude: 5 Alemanian, 3 Britainia Handian eta 3 Holandan.

Halaber, biztanleko BPGd altuenetakoa erregistratu duten 9 eskualdeetatik 6, estatuko hiriburu dira: Londres, Luxenburgo, Brusela, Paris, Viena eta Stockholm. Aberastasuna sortzeko aukerak Europako administrazio-hiri handietan sortzen eta metatzen direla erakusten du datu horrek.



15. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Iraila



Europako 15 eskualde aberatsenetan Gipuzkoako biztanleko BPGd gainditu da batez beste, +% 37; 30 eskualde aberatsenak kontuan hartuta, +% 19ko aldea ikus daiteke (ikus taula).

Biztanleko BPGD altuena duten hogeita hamar eskualdeak

Eskualdeak (NUTS2)	Estatua	Indizea (Gipuzkoa=100)	Indizea (EB-27=100)
1.Inner London	Erresuma Batua	242,5	335,9
2.Luxembourg	Luxenburgo	192,9	267,1
3.Bruxelles-Capitale	Belgika	168,4	233,3
4.Hamburg	Alemania	144,2	199,7
5.Groningen	Holanda	125,4	173,7
6.Île de France	Frantzia	122,5	169,7
7.Oberbayern	Alemania	121,2	167,9
8.Wien	Austria	119,8	165,9
9.Stockholm	Suedia	119,7	165,8
10.Berckshire and others	Erresuma Batua	118,4	164
11.Southern and Eastern	Irlanda	118	163,4
12.Praha	Txekiar Errepublika	117,2	162,3
13.Darmstadt	Alemania	114,3	158,3
14.Bremen	Alemania	113,3	156,9
15.Utrecht	Holanda	112,7	156,1
BATEZ BESTEKOIA 15+	-----	136,7	189,3
16.Hovedstaden	Danimarka	112	155,1
17.North Eastern Scotland	Erresuma Batua	110,8	153,5
18.Noord-Holland	Holanda	109,3	151,4
19.Bratislavsky kraj	Eslovakia	107,4	148,7
20.Aland	Finlandia	105,9	146,7
21.Antwerpen	Belgika	100,9	139,7
22.Salzburg	Austria	100,6	139,4
23.Stuttgart	Alemania	100,1	138,7
GIPUZKOA	Espainia	100	138,5
24.Madrid	Espainia	98	135,7
25.Bolzano-Bozen	Italia	97,8	135,5
26.Lombardia	Italia	97,5	135,1
27.Zuid-Holland	Holanda	97,5	135
28.País Vasco	Espainia	96,5	133,7
29.Cheshire	Erresuma Batua	96,3	133,4
30.Etela-Suomi	Finlandia	95,7	132,5
BATEZ BESTEKOIA 30+	-----	119,2	165,1

15. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Iraila



Errenta altuena duen eskualdeak Gipuzkoako errenta 2,4 aldiz biderkatzen du; errenta baxuena duenak 5,6 aldiz baxuagoa du

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, biztanleko BPGd altuena duen Europako eskualdean (Inner London) sortzen den per capita aberastasunak 2,4 aldiz biderkatzen du Gipuzkoakoa.

Desberdintasuna are nabarmenagoa da Gipuzkoa eta aberastasun gutxien duen eskualdea alderatzean, 5,6ko balioa erregistratzen delarik. Normandiako Nord-Est eskualdeari dagokio balio hori (Europar Batasuneko 271 eskualdeetako azkena); horrela, bertan erregistratutako biztanleko BPGd Gipuzkoakoaren seirena da ia (% 18ko portzentajea).

Eta Europar Batasuneko hamabost eskualde pobreenetan, batez beste, ez dira iristen Gipuzkoan biztanleko urtean sortzen den aberastasunaren laurdenera (% 23ko portzentajea).

Jarraian ikus daitekeen moduan, eskualde pobreak hiru estatutan daude: Errumania (6), Bulgaria (5) eta Polonia (4).

• Biztanleko BPGd baxuena duten hamabost eskualdeak

Eskualdeak (NUTS2)	Estatua	Indizea (Gipuzkoa=100)	Indizea (EB-27=100)
271.Nord-Est	Errumania	17,8	24,7
270.Severozapaden	Bulgaria	18,3	25,4
269.Severen tsentralen	Bulgaria	19,4	26,9
268.Yuzhen tzentralen	Bulgaria	20,1	27,8
267.Sud-Vest Oltenia	Errumania	21,9	30,4
266.Yugoiztochen	Bulgaria	22,7	31,5
265.Severoiztochen	Bulgaria	23	31,8
264.Sud-Muntenia	Errumania	23,2	32,1
263.Sud-Est	Errumania	23,5	32,5
262.Lubelskie	Polonia	25,5	35,3
261.Podkarpackie	Polonia	25,8	35,8
260.Nord-Vest	Errumania	25,9	35,9
259.Centru	Errumania	27,7	38,3
258.Podlaskie	Polonia	27,7	38,4
257.Warminsko-Mazurskie	Polonia	28,5	39,5
BATEZ BESTEKOA 15+	-----	23,4	32,4



Informazio gehiago

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/portal/page/portal/product_details/publication?p_product_code=KS-HA-09-001

ISSN 1830-9674

eurostat
Statistical books

Eurostat regional yearbook 2009



eurostat 
EUROPEAN COMMISSION